Urteko/zikloko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de ciclo

ikastetxea: *centro:*	**ARALAR BHI**	**kodea:** *código*:	012951
etapa: *etapa:*	**DBHko 2 ZIKLOA**	**zikloa/maila:** *ciclo/nivel*:	**4.MAILA**
arloa/irakasgaia: *área / materia*:	**GEOGRAFIA ETA HISTORIA**		
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak *competencias disciplinares básicas asociadas*	**KONPETENTZIA SOZIAL ETA ZIBIKOA**		
irakasleak: *profesorado:*	**INES HERRERO**	**ikasturtea:** *curso*:	**2022-23**

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales*:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia

helburuak *objetivos*	**ebaluazio-irizpideak** *criterios de evaluación*

helburuak *objetivos*	**ebaluazio-irizpideak** *criterios de evaluación*
1. Ingurune fisikoaren bereizgarri diren oinarrizko elementuak ingurune hurbiletatik abiatuz identifikatzea eta kokatzea zenbait eskaletan eta elementu horiek elkarreraginei erreparatzen, ulertzeko gizakion bizitza nola baldintzatzen duten eta, aldi berean, gizakiak nola eraldatzen dituen. Horren helburua da gizakiaren ekintzak zer gizarte arazo sortzen dituen ikustea eta horretaz konsziente izatea. 2.Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea. Orobat, ohartzea zer kultura-ezaugarri direla-eta diren euskal gizarteko kide, beste talde batzuetako kide izateko	- Hiru sektore ekonomikoen ezaugarri nagusiak adieraztea eta haien adibide adierazgarri ematea. E.A.E eta Espainiako ezaugarri batzuk identifikatzea eta gaur egungo arazo batzuk adieraztea. - Ea hiru sektoreetan dauden mota nagusiak eta haien ezaugarriak identifikatzen dituen. -Ea mapetan baliabide naturalak, industria gune nagusiak, turismoaren fluxuak non dauden adierazten dituen.

aukera eragotzi gabe. Horren helburua da nork bere nortasun zehaztua eta onartua izatea, gizartean modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko. 3. Ingurune fisikoaren bereizgarri diren oinarrizko elementuak ingurune hurbiletik abiatuz identifikatzea eta kokatzea zenbait eskalatan eta elementu horien elkarreraginei erreparatzea, ulertzeko gizakion bizitza nola baldintzatzen duten eta, aldi berean, gizakiak nola eraldatzen dituen. Horren helburua da gizakiaren ekintzak zer gizarte-arazo eta ingurumen-arazo sortzen dituen ikustea eta horretaz kontziente izatea 4. Identifikatzea zein izan diren Euskal Herriarentzat gertaera eta prozesu historiko garran tzitsuenak, direla tokikoak, direla esparru zabalagokoak, eta denboran eta espazioan kokatzea. Horren helburua da gizateriaren bilakaeraren ikuspegi propioa eta globala izatea eta aldaketak eragiteko gaitasunari buruzko kontzientzia kritikoa izatea. 5. Datu historikoak biltzea, zenbait irizpide erabiliz: denboran orientatzekoak (iragana, oraina eta etorkizuna); denbora-posizio erlatiboak (segidakoak, aldiberekoak, diakronia, sinkronia); iraupena (faktikoa; koiunturala; egiturazkoa; iraupen laburrekoa, ertainekoa edo luzekoa); denbora-neurriak (denbora-unitatea, denbora eta kronologia historikoa). Horren helburua da gizarteen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzea. 6. Ondare naturala, kulturala, linguistikoa, artistikoa, historikoa eta soziala, norberarena zein bestearena, aintzat hartu eta errespetatzea, eta norbanakoek zein herriek beren identitatea izateko duten eskubidetzat jotzea. Eta hura babestu, kontserbatu eta hobetzeak dakarren erantzukizuna onartzea, nork bere esparrutik gizateriaren garapenean laguntzeko, dela modu indibidualean dela modu kolektiboan. 7. Gizarte demokratikoek zer antolaketa eta funtzionamendu duten jakitea, eta haien oinarri diren oinarrizko balioak eta printzipioak zein diren jakitea. Eta giza eskubideak erreferente unibertsal moduan erabiltzea norberaren bizitzako eta gizarte-bizitzako ekintzei eta egoerei buruzko iritziak sortzeko. Orobat, eskubideak urratuta dituzten edo beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ez dituzten herriekin, gizarte-taldeekin eta pertsonekin solidarioak izatea eta jarrera eta egoera baztertzaileak eta bidegabeak salatzea. Horren helburua da gizarte demokratikoetan modu kontziente, arduratsu eta kritikoan parte hartzea. 8. Europar Batasunaren antolakuntza politikoaren eta	- Ea energia alernatiboak identifikatzen dituen. - Grafiko mota desberdinetan eta irudietan informazio ekonomikoa ebaluatzen eta bereizten duen. - Ea jarduera ekonomien deslokalizazioaren eraginaz jabetzen den. -Ea ingurumen ondorioak zer diren badakien. - Ea E.A.E eta Espainiako sektore ekonomikoen egoera ezgutzen dituen. - Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko aro garaikideko gertakari eta prozesu historikoak denboran eta espazioan kokatzea, eta historia aztertzeko tresna egokiak erabiltzea. -Ea gertaerak eta prozesuak denbora-lerroetan kokatzen dituen. -Ea gaur egungo eta aurreko herrialdeak mapan kokatzen dituen. -Ea garai berean Europako herrialdeak garapen ezberdina zutela ulertzen duen. -Ea lehen mailako eta bigarreneko iturriak modu egokian aztertzen dituen informazioa lortzeko. -Euskal Herrian, Espainian, Europa eta munduan Aro Garaikidean izandako aldi eta gertaera garrantzitsuenak eta prozesu historiko aipagarrienak denboran eta espazioan kokatzea; eta Historia ikastean ohikoenak diren kontzeptuak erabiltzea. -Ea Euskal Herriko lurralde historikoen bizi izandako gorabehera historikoen ezaugarri nagusiak deskribatzen dituen, munduko eta Europako historien testuinguruan. -Gertaera eta edo prozesu historiko esanguratsuenen kausak eta ondorioak ezagutzea, haien artean dauden loturak zehaztea eta gertaera sozialak osatzen dituzten kausalitate-aniztasuna ikastea. -Ea antzematen duen gertaera eta

erakundeen funtzionamenduaren berri izatea, jakitea funtsezko zer balio eta printzipio dituzten oinarri, eta haren gabeziekiko kritiko izatea, arrazoituz. Helburua da ulertzea Europar Batasuna Europako herrien, estatuen eta eskualdeen harremanetarako eta parte-hartzerako eremua dela, eta beharrezkoa dela hobeto funtzionatzea. 9. Gaur egungo gizarteen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertzea, eta errealitateak eta egoerak aztertzea. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrak sustatzea eta abian jartzea, zenbait eskalatan, pertsonen arteko eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetzeko eta baliabide naturalak arduraz erabiltzeko. 10. Gizarte-fenomenoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, eta gertaera sozialen, politikoen, ekonomikoen eta kulturalen arteko loturak aztertzea. Ezagutza hori gaur egungo gizarteen bilakaera azaltzen duten kausak askotarikoak direla ulertzeko oinarria izango da, eta Historiaren ikuspegi arrazoitua eta kritikoa edukitzeko. Azken helburua herritar moduan gizartea hobetzeko ekintzak abian jartzea izango da. 11. Gizarte-zientzien bereizgarri diren kontzeptuzko baliabideak, teknikak eta lan-prozedurak aplikatzea, eta arloko lexikoa erabiltzea zehatz eta zorrotz. Horrenbestez, lan monografiko txikiak eta ikerketak egingo dira, banaka zein taldeka, Euskal Herriaren, hurbileko eremuen eta munduaren jatorriaz eta bilakaera historikoaz ikertzeko. 12. Talde-lana egitea eta eztabaidetan eta debateetan parte hartzea jarrera konstruktiboa, irekia, arduratsua, kritikoa eta tolerantea izanda eta iritziak eta proposamenak behar bezala arrazoituta. Orobat, desadostasunak eta elkarrizketa gizakien ateko gatazkak eta gatazka sozialak konpontzeko bidea dela ikusi beharko dute, eta taldeko lan-teknikak landuko dira, bai sormenezko lorpen komun bat izateko, bai eta pertsonaren eta taldearen elkarrekintza nagusi den gizartean egoki txertatzeko ere. 13. Informazio geografikoa eta historikoa lortzea. Horretarako, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografikoa planifikatu, aukeratu eta erlazionatu behar dute (informazioa hainbat iturritatik lortuko dute, komunikabideak eta informazioaren eta	edo prozesu historikoen kausalitate-aniztasuna. -Ea ezagutzen dituen gertaera edo prozesu historiko garrantzitsu batean eragiten duten faktoreak. -Ea sailkatzen eta erlazionatzen dituen gertaera edo prozesu historikoak eragiten dituzten kausak. -Ea zehazten dituen gertaera historiko bat sortzea eragiten duten kausek epe laburrera eta luzera dakartzaten ondorioak. -Ea dakien gertaera historikoak interpretatzen eta erlazionatzen. -Ea ezagutzen dituen Europako eta munduko historiaren une giltzarriak eta gertaera garrantzitsuenak, eta epe horretan Espainian eta Euskal Herrian izan zuen eragina ulertzen duen puntuazioa.

komunikazioaren teknologiak barne). Informazio hori laburbildu egingo dute, eta lortutako emaitzak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzen jakin behar dute.	

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA *[Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].*

1. arazo egoera / Situación problema 1

Tartean sartutako alorrak:, GEOGRAFIA ETA HISTORIA.
Gaia: LEHEN MUNDU GERRA
Maila: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
Proposamena testuinguratzea: Historia ikasterakoan zaila izaten zaie ikasleei iraganeko gizon-emakumeen lekuan kokatzea. Enpatia hori da historiako ikasgaiak izan behar duen helburuetako bat, ikasketa esanguratsua lortzen lagundu baitezake.

Gerrak ez dira armen eta gertaeren zerrenda hutsa, ezta hildakoen eta zaurituen zenbaketa bakarrik. Gerrak errotik aldatzen die bizitza gizon-emakumeei, eta hortaz ohartzeko prestatu da unitate hau.

Europako nazioak ekonomiaren modernizazioaren buru ziren, lur osoko lurraldeak mendean zituzten, eta aitzindariak ziren kultura-aurrerapenetan. Potentzia berriak agertzeak, eta kolonietako borrokaldiek, ordea, iragartzen zuten ordena hori ez zela betiko izango.

Landutako oinarrizko gaitasunak:
1. Gizarte eta hiritar-gaitasuna.
2. Ikasten ikasteko gaitasuna.
3. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
4. Elkarbizitzarako konpetentzia.
5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Helburu didaktikoak

Lehen Mundu Gerrako soldadu baten lekuan jarriz, bere egunerokoa idaztea.

1. Datu historikoak biltzea, zenbait irizpide erabiliz: denboran orientatzekoak (iragana, oraina eta etorkizuna); denbora-posizio erlatiboak (segidakoak, aldiberekoak, diakronia, sinkronia), eta abar. Horren helburua da gizarteen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzea.

2. Gizarte demokratikoek zer antolaketa eta funtzionamendu duten jakitea, eta haien oinarri diren oinarrizko balioak eta printzipioak zein diren jakitea. Horren helburua oinarrizko balioak eta printzipioak zein diren jakitea. Horren helburua da gizarte demokratikoetan modu kontziente, arduratsu eta kritikoan parte hartzea.

3. Gaur egungo gizarteen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertzea. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrak sustatzea eta abian jartzea.

4. Gizarte-fenomenoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, eta gertaera sozialen, politikoen, ekonomikoen eta kulturalen arteko loturak aztertzea. Azken helburua herritar moduan gizartea hobetzeko ekintzak abian jartzea izango da.

5. Gizarte-zientzien bereizgarri diren kontzeptuzko baliabideak, teknikak eta lanprozedurak aplikatzea, eta arloko lexikoa erabiltzea zehatz eta zorrotz.

6. Talde-lana egitea eta eztabaidetan eta debateetan parte hartzea jarrera konstruktiboa, irekia, arduratsua, kritikoa eta tolerantea izanda eta iritziak eta proposamenak behar bezala arrazoituta.

7. Informazio historikoa lortzea hainbat iturritatik. Informazio hori laburbildu egingo dute, eta lortutako emaitzak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzen jakin behar dute.

Jardueren sekuentzia:

1. jarduera. Aurrebaluazioa: iparraldeko herri bateko hilarria: zein gerrataz ari da?

2.jarduera: Herrialde hauen banderak margotu: Frantzia, Britainia Handia, Alemania, Austria-Hungaria eta Errusia. Bandera bakoitzean idatzi (BH, Fr, Err: Entente Hirukoitza; Alem, Austr, It: Aliantza Hirukoitza

-nortzuk ziren beren aliatuak eta zergatik

-zeintzuk ziren beren etsaiak eta zergatik

3. jarduera: Garaiko testuak eta irudiak aztertuz, azaldu potentzia bakoitzak zer iritzi zuen besteekiko.

4. jarduera: Idatzi hiru egunkarietako lerroburuak Frantzisko Fernandoren hilketa dela-eta. Egunkariok Serbiakoak, Errusiakoak eta Alemaniakoak dira.

5. jarduera: Soldadu alemaniar bat zara. Schlieffen planean parte hartu duzu. Idatzi zure erantzuna, egunerokioan, ondoko gertaerak direla-eta:

-Belgikaren inbasioa

-Marneko gudua

6. jarduera: Zure burua grabatu zure etxeko ala eskolako pasiloan. Demagun hori lubakia dela. Aurrera eginez azaldu, gida baten moduan, nolakoa den eta zertarako erabiltzen den gauza bakoitza, seinalatuz, nahiz eta ikusi ez.

7. jarduera: Arma bakoitzaren abantailak eta desabantailak idatzi taula batean.

8. jarduera: Versaillesko itunaren aurrean Alemania, Britainia Handia eta Frantziako kazetarien artikuluak idatzi.

9. jarduera: ikasitakoak eskema batean laburtu.

Ebaluazioa Adierazleak

Azaltzea Europak zergatik izan zuen protagonismoa XIX. mendeko bigarren zatian, eta urte horietako gatazka eta arazo nabarmenak bereiztea; batez ere, hedapen kolonialarekin eta tentsio sozial eta politikoekin lotutakoak.

Ea Lehen Mundu Gerraren gertaerak eta etapak modu kronologikoak ordenatzen dituen.

2. XX. mendean munduan izan diren eraldaketak eta gatazkak denboran eta espazioan kokatzea, eta historiaren jakintza hori gaur egungo nazioarteko arazo nagusietako batzuk ulertzeko erabiltzea.

Ea gaurko gatazka askoren kausak Lehen Mundu Gerran aurkitzen dituen.

3. Munduan gaur egun tentsio politikoa edo soziala bizi duen guneren bati buruzko lan bat planifikatu eta egitea, bakarka edo taldean, eta haren aurrekari historikoak eta zergatiak aztertzea eta zer gerta daitekeen

Ea Lehen Mundu Gerraren epe luzeko kausen arteko loturak aurkitzen dituen

Ea aztertzen du zergatik murgildu zen mundu osoa gerran.

4. Kritikoki aztertzea kide den eta erreferentzia dituen talde eta erakundeen (familia, eskola, herri, autonomia-erkidego, estatu eta gainerakoen) antolaketa-egitura eta ohiko funtzionamendu modua, eta behar bezala aplikatzea demokraziaren funtzionamendua arautzen duten oinarrizko irizpideak.

Ea grafikoak eta testuak aztertzen dituen Lehen Mundu Gerraren ondorioak lortzeko

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoka, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,…] ***SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS*** *[organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje…]*

1. EBALUAZIOA

1 Antzinako Erregimena errepaso laburra.
2-Antzinako Erregimenaren krisialdia
3-Iraultza liberalak eta nazionalismoak

2. EBALUAZIOA

1-Industria Iraultza eta gizarte-aldaketak.
2-Espainia eta euskal lurraldeak XIX. mendean
3-Inperialismoa, Lehen Mundu Gerra eta Errusiako iraultza.
Gerren arteko mundua: Depresio Handia,faxismoa,nazismoa
Bigarren Mundu Gerra.

3. EBALUAZIOA

1-Espainia eta euskal lurraldeak: 98ko krisitik Gerra Zibilera
2-Gerra Hotza
Deskolonizazioa eta Hirugarren Mundua
Mundua 1945etik gaur egun arte
3-Espainia eta euskal lurraldeak: diktaduratik demokraziara.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna… ikuspegi inklusibo batetik] ***METODOLOGÍA*** *[organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado… desde una perspectiva inclusiva].*

- Gaiaren arabera egokienak diren metodoak erabiliko dira: azalpenak (PWP aurkezpenak erabiliz), bakarka egindako lana eta ikerketak, talde lanak, eztabaidak…
- Ulermenean oinarritutako irakaskuntza bultzatuko da. Lan jarraitua egingo da, oroimen ulerkorra landuz eta funtzionalitatea bilatuz, hortaz, “egiten jakitea”, “jakite” hutsari gailenduko zaio.
- Unitate bakoitzeko edukiak lantzeko ikasleen aurretiko ideietatik abiatuko gara. Horrela ikasle bakoitzak bereak dituen eskemetan ezarriko du ikasketa berria, esperientzia pertsonalean oinarrituko du.
- Azalpenak ematerakoan, unitate ezberdinen edukien artean dauden loturak azpimarratuko dira, ikasleek edukien artean lotura sare aberats bat dagoela ikusteko.
- Ikaslea ardatz duten estrategia interaktiboak nagusituko dira, beste batzuen artean, eztabaidak, simulazioak eta proiektuak planteatuko dira.
- Ikasketa prozesuan hiztegi berriari garrantzi handia emango zaio, gaiaren ezagutzarako eta hizkuntza gaitasunerako. Hori horrela, garrantzi berezia emango zaio euskarari eta ulermen eta adierazpenari, honen inguruko ekintza ezberdinak burutuz.
- Irakurketa: ulermena lantzeko ekintzak burutuko dira ikasturtean zehar eta irakurketa

librea bultzatuko da ere.

- Eguneroko informazioari garrantzi berezia emango zaio, gertuko errealitatearen ezagutza abiapuntutzat hartuko dugu, espazioan urrunago dauden beste errealitate batzuk ulertzeko.

- Artelan ezberdinen zein mapa historikoen azterketa ere erabiliko da, Historiako gertakizun eta prozesu nagusiak grafikoki ere identifikatzen ikasteko.
- Berdintasunean oinarritutako lan- giroa sustatuko da, diskriminazio edozein jokabide baztertuko delarik. Eta emakumeen ekarpenak integratuz.

Baliabide didaktikoak:

- Testu liburua (Geografia eta Historia 2DBH, Zubia-Santillana) eta editorialak eskainitako materiala. Testuliburua ikaslearentzat oinarri moduan erabiliko da, beste material batzuekin osatzeko.
- Egunkari, hiztegi Entziklopedikoak eta aldizkariak.
- Atlas, datu estatistiko, mapa historiko, grafiko, testu, irudi eta artelanak.
- Informatika tresnak, power point, preziak, web quest, kahoou, internet, denbora lerroak, webgunetako konexioak, dokumental, bideo laburrak…
- Eskolako IKT baliabideak gelako ordenagailua zein proiektorea erabiliko dira saio gehienetan..
- Ikasleen ordenagailu propiak.
- Google apps-ek eskainitako tresnak: Classroom, Drive, calendar, e-mailak, Youtube….
- Euskarri digitala :
- http://www.anakel.com/
- https://www.youtube.com/?gl=ES&hl=es
- http://www.digital.santillana.es/.
- http://www.hiru.eus/eu/recursos-didacticos
- http://www.cineddhh.org/eu/gida-didaktikoak/pelikula-bat-nola-ikusi-bigarren-hezkuntza/3-baliabideak-gehiago-jakiteko/
- http://www.profes.net/
- https://mapasinteractivos.didactalia.net/comunidad/mapasflashinteractivo

Irakasleen eta ikasleen eginkizuna:

Irakaslea: ezagutzaren eta ikaslearen arteko bitartekaria izango da. Ikasten laguntzen duten egoera didaktikoak sortuz eta ikasleei ideiak adierazten eta ezagutzak egituratzen lagunduz.
Ikaslea: ikasle bakoitza bere ikasketa prozesuaren protagonista izango da. Hori horrela, ikaslea ardatz izango duten estrategiak erabiliko dira, ikertu, erlazionatu, ondorioak atera eta abar ikasleak berak egin beharko dituelarik. Horretarako, komunikazioa, partaidetza eta norberaren ekimena sustatuko dira.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoa, portfolioa, kontratu didaktikoa…] ***INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN*** *[pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico…].*	**KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK** [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] ***CRITERIOS DE CALIFICACIÓN*** *[peso y valor de cada instrumento de evaluación].*
• Bi edo hiru proba objektibo idatziak egingo dira programazioan jarritako ebaluazio irizpideak kontutan hartuz (oinarrizko konpetentziak eta oinarrizko zehar konpetentziak). Proba hauen emaitzekin, bataz bestekoa egiteko, ezinbestekoa izango da proba bakoitzean lau bat baino gehiago ateratzea. • Eguneroko lanaren koadernoa. Ariketak eguneratuak egon behar dira ; ordena, zuzenketa eta txukuntasuna kontutan hartuko dira. Honetaz gain, bakarka eta taldeko lanak ebaluatuko dira unitate didaktiko eta lan bakoitzerako jarritako ebaluazioa irizpideak.Orokorrean, lan hauek finkatutako epea eta jarritako gidoiak eta arauak errespetatuz eginak egon behar dira. • Talde lanetan irakaslearen ebaluazioa ez ezik norberarena eta taldekideena ere kontutan hartuko da. • Banakako eta talde lanak: lanak emandako iradokizunak jarraituz burutzea eta hiztegi egokia erabiltzea baloratuko dira. Baita originaltasuna, txukuntasuna eta lanen elaborazio maila ere. • Jarrera: ikasturte osoan zehar baloratuko da. Ebaluazioa gainditutzat emateko, ezinbestekoa izango da ikasleak gaitasun hau bereganatua izatea. Ondoko atal hauek neurtuko dira: parte hartzea, irakaslearen jarduna ez etetea, materiala ekartzea, etxeko lanak egitea, arauak errespetatzea, errespetuz hitz egitea eta jardutea irakasleekin, ikaskideekin, materialekin … puntualtasuna eta orokorrean, behar bezala jokatzea… orokorrean oinarrizko zehar konpetentziek biltzen dutena. Gainera, Bizikidetza Batzordeak erabakitakoa kontuan hartuko da.	KALIFIKAZIO SISTEMA: • Ebaluazioaren kalifikazioan, eduki desberdinek ez dute portzentai berdina izango. • Eskolako irizpideen arabera, idatzietan zuzentasuna baloratuko da. • Proba hauen emaitzekin, bataz bestekoa egiteko, ezinbestekoa izango da proba bakoitzean lau bat baino gehiago ateratzea. Hauek baloratuko dira: • Proba idatziak • Proiektuak/arazo integratzaileak • Ahozko komunikazioa • Lana: Gelako behaketa • Jarrera ikasgairekiko eta autoebaluaziuoa. * Ohar garrantzitsuak: • Arrazoirik gabe epez kanpoko lanik EZ da jasoko edo nota jaitsiko da. • Proba edota lanetan kopiatzen harrapatuz gero, proba edo lan hori ez da zuzenduko, bere kalifikazioa 0 izango delarik.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN *[medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación…].*

EGOKITZAPENAK:

Ikasleen berezitasun eta beharren arabera (Curriculumaren Norbanako Egokitzapenak) egokitukoa dira eduki eta zereginak behar den kasuetan.

AZTERKETAK:

Ebaluazioko bataz bestekoa egiteko, azterketen atalen media 4 batekoa izan beharko du.
Froga zuzentzerakoan ondoko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

- Galdetutakoari erantzutea.
- Erantzun ordenatua egituratzea.
- Azalpenen eta kontzeptuen argitasuna.
- Gertaerak erlazionatzeko gaitasuna.
- Elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna.
- Ezagupen maila. Terminologiaren erabilera zuzena.
- Idazkeraren zuzentasuna: ortografia, gramatika, morfosintaxia … eta heldutasuna: Txukuntasuna.
- Akats nabarmena egiten bada hutsunea baino gehiago hartuko da kontuan.

ERREKUPERAZIO SISTEMA:

Ebaluazio bat edo gehiago suspendituz gero, ikasleak aukera izango du berreskuratzeko.

- Ebaluazioko berreskurapena: Edukiak berreskuratzeko azterketa egingo da ebaluazioa ondoren. Lanak aurkeztu ez baditu, lan horiek entregatu beharko ditu. Kalifikazio irizpideak, ebaluazioan zehar erabilitakoak izango dira.
- Ekainean, ez ohiko probak egingo dira.
- Ekainean hiru ebaluazioen artean bataz bestekoa egingo dugu, betiere nota txikiena 4 bada.

AURREKO URTEKO GAINDITU GABEAK:

Ikasturte batetik bestera oinarrizko helburuak lortzen ez dituzten ikasleek, jarduera txosten bat egin beharko dute. Horretarako, ikasleek irakasleak antolatutako materiala izango dute. Txostena entregatzeko eta azterketak egiteko datak ikasleekin adostuko dira. Txostena egoki burutzea, irakasleak emandako epean ezinbesteko baldintza da berreskuratzeko

Lana aurkezten ez dutenei eta eurek eskatzen badute, azterketa baten bidez errekuperatzeko aukera emango zaie Historia mintegiak erabakitako egunetan.

Kurtsoko ebaluazioa gainditu balu, nota gordeko zaio aurreko urtekoa berreskuratu arte.

OHARRAK / ***OBSERVACIONES***

GUTXIENEKO MINIMIOAK

- Antzinako Erregimena ezagutzea eta Eri Arotik Aro Modernora arlo guzteietan eman ziren aldaketen garrantziaz ohartaraztea.
- Erregimen Zaharretik erregimen liberaleraino alor guztietan emandako aldaketak bereiztea.
- Erregimen aldaketa hori Espainian eta Euskal Herrian izandako gertakari garrantzitsu batzuekin lotzea (Karlista gerrak, foruen ezabapena..).
- XX.mendean gertakizun nagusien berri izatea (mundu gerrak, bi blokeen agerpena, Gerra Zibila, frankismoa, gaur rgungo egoera..)
- Egindako lanak aurkeztea.
- Ikerteta xinpleak egitea.
- Grafikoak interpretatzea.
- Mapak irakutzea.
- Bideoen lanketa.
- Meet eta Classroom erabiltzea.